

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure bidaia-agentziaren arrakasta bermatzeko, beharrezkoa da hainbat baliabide modu eraginkorrean kudeatzea.

Lehenik, baliabide materialak behar ditugu: bulego fisiko bat, ordenagailuak eta bidaiak kudeatzeko softwarea. Halaber, webgune profesional bat eta sare sozialetako presentzia ezinbestekoak dira, baita erreserba-sistemak (adibidez booking edo trivago bezalako sistemak) eta ordainketa-pasabideak ere.

Giza baliabideei dagokienez, bezeroei arreta emateko talde eraginkorra, gida turistikoak eta marketin digitaleko adituak beharko ditugu. Bazkide estrategikoek, hala nola, hotel eta garraio-enpresek, zerbitzuen eskaintza indartuko dute.

Laburbilduz, baliabide materialak, teknologikoak, giza baliabideak konbinatuko ditugu, modu honera gure agentzia lehiakorra eta erakargarria izango da.